

EHUko DOKUMENTU FUNTSAREN SAILKAPEN TAULA

UPV/EHUko Errektorearen 2016ko abenduaren 21eko Erabakiaren bidez onartu zen UPV/EHUko dokumentu funtsaren sailkapen taula. Erabaki horretako bigarren puntuak hau jasotzen zuen:

“Bigarrena.- Ahalmena ematea UPV/EHUko idazkari nagusiari, erabaki bidez eta Administrazio Modernizazioaren Batzordearen txostena jaso ondoren, zerbitzuen funtzionamendura egokitzeko behar diren eguneratzeak eta egokitzapenak onartzeko. Aurrekoa gorabehera, taula berria indarrean sartu eta 2 urte igarotzen direnean, berrikuspen eta eguneratze orokor bat egingo da, errektorearen erabaki bidez onartu beharko dena”.

Adierazitako epe hori gainditu denez, beharrezkotzat jo da taula berrikusi eta eguneratzea, administrazio elektronikorako aldaketa prozesua are gehiago errazteko. Taula berriak aurrekoaren eredu funtzionalari jarraitzen dio, baina aldaketa txiki batzuk egin dira, bereziki mailetan.

- 1. maila (N1) funtsari dagokio; kasu honetan, UPV/EHUri, erakunde gisa, eta EHU kodifikazioa dauka.
- 2. maila (N2) eskolei dagokie, unibertsitateko jardueraren ardatz funtzional nagusia baitira eta jarduketa eremuie egiten die erreferentzia; hizki larri bat bakarrik dagokio, ordena alfabetikoan, jarduketa esparru bakoitzari esleitua; erakunde izaera dutenetatik hasi, UPV/EHUko oinarritzko misioei dagozkienekin jarraitu, eta instrumentalagoak diren horiekin amaitzen da.
- 3. maila (N3). Sailkapen taulako mota bakoitza azpimotetan banatzen da, azpifuntzioei dagozkionak.
- 4. maila (N4). Maila hori dokumentu segidei dagokie.

Aurreko taulan, laugarren maila Unibertsitateak garatutako jarduera zehatzetarako erabiltzen zen, eta bosgarren sailkapen maila azpijarduera zehatzagoetarako esleituta zegoen. Hemendik aurrera, bosgarren hori desagertuko da eta laugarrena dokumentu segidetarako izango da. Hori dela eta, taula berrian ez dira segidak islatuko; beraz, sailkapen taularekiko paraleloan, UPV/EHUko dokumentu segiden inbentario bat egingo da, denak ala denak dagokion jardueran sailkatuta, kodifikazio orokorraren sekuentzia alfanumeriko berari jarraituz.

Horrenbestez, UPV/EHUko dokumentu segidak Administrazio Prozeduren katalogoa egin ahala identifikatuko dira, eta dagokion azpimotaren edo azpifuntzioaren barruan sailkatuko dira denak (N3). Sailkapen taularen eranskin gisa gehituko da identifikatutako segiden behin-behineko inbentario bat, azpimota edo azpifuntzioetan sailkatuta, baina etengabe aldatuko da, eguneratze prozesu jarraituan egongo baita UPV/EHUko Artxibo Nagusiaren web orrian.

Adibidea:

Sailkapen taula:

N2 EHU A 00.00 EGITURA, GOBERNUA ETA ANTOLAKUNTZA (Mota/Funtzioa)

N3 EHU A 01.00 EGITURA (Azpimota/Azpifuntzioa)

Segiden inbentarioa

N4 EHU A 01.01 Sailak sortzea / kentzea / eraldatzea (Segida)

N4 EHU A 01.02 Arlo eta/edo sail aldaketak (Segida)

N4 EHU A 01.03 Ikastegiak sortzea / kentzea / eraldatzea (Segida).

Taula honek oinarri hartzen du CRUEko Unibertsitateetako Artxiboen Konferentziak (CAU-Crue) 2021ean proposatutako sailkapen taularen egitura orokorra. Erabaki horren helburua da ahalik eta modurik onenean homogeneizatzen saiatzea Espainiako unibertsitateetako dokumentu segiden kodifikazioa eta, horren bidez, unibertsitateetako dokumentazioaren trukea eta elkarreragingarritasuna bideratzea administrazio prozeduren eraldaketa digitalaren ingurunean.

UPV/EHUko dokumentuen sailkapen taula berria onartzearen bidez, tresna bere egitura berriarekin ofizializatzea lortu nahi da, baina ahaztu gabe bilakaera prozesuan dagoen tresna dela, eta beharrezkoa den guztietan eguneratuko da zerbitzuen funtzionamendura egokitzeko.

Taula berri hori Dokumentazioaren Baloraziorako, Aukeraketarako eta Dokumentaziora Jotzeko Batzordearen 2025eko azaroaren 11ko bileran onetsi zen.

EHUko DOKUMENTU FUNTSAREN SAILKAPEN TAULA (2025)

Maila Kodea Hitza

N2	A00.00	EGITURA, GOBERNUA ETA ANTOLAKUNTZA
-----------	---------------	---

N3	A01.00	EGITURA
N3	A02.00	GOBERNUA ETA ORDEZKARITZA
N3	A03.00	ESKUMEN ADMINISTRATIBOA
N3	A04.00	PLANGINTZA ESTRATEGIKOA
N3	A05.00	KONTU-EMATEA
N3	A06.00	PROZESUAK ETA PROZEDURAK
N3	A07.00	KALITATE SISTEMA
N3	A08.00	ADMINISTRAZIO ELEKTRONIKOA
N3	A09.00	ZIURTAPEN DIGITALA

N2	B00.00	INFORMAZIO BALIABIDEEN ETA KOMUNIKAZIO SISTEMEN KUDEAKETA
-----------	---------------	--

N3	B01.00	ADMINISTRAZIO DOKUMENTUEN NORMALIZAZIOA ETA ERREGISTROA
N3	B02.00	ADMINISTRAZIO DOKUMENTUEN ETA ARTXIBOEN KUDEAKETA
N3	B03.00	DATU PERTSONALEN TRATAMENDUA
N3	B04.00	BIBLIOGRAFIA FUNTSAK KUDEATZEA
N3	B05.00	INFORMATIKA KUDEAKETA
N3	B06.00	KOMUNIKAZIOEN KUDEAKETA
N3	B07.00	ARGITALPENEN KUDEAKETA
N3	B08.00	GARDENTASUNA ETA INFORMAZIO PUBLIKOA ESKURATZEA

N2	C00.00	ORDEZKARITZA ETA HARREMAN INSTITUZIONALAK
-----------	---------------	--

N3	C01.00	EKITALDI INSTITUZIONALAK
N3	C02.00	HARREMAN PUBLIKOAK
N3	C03.00	KANPO HARREMANAK
N3	C04.00	BARNE HARREMANAK

N2	D00.00	GIZA BALIABIDEEN KUDEAKETA
-----------	---------------	-----------------------------------

N3	D01.00	GIZA BALIABIDEEN PLANGINTZA
N3	D02.00	GIZA BALIABIDEEN ANTOLAKUNTZA
N3	D03.00	IRAKASLE ETA IKERTZAILEAK HAUTATZEA ETA LANPOSTUAK BETETZEA
N3	D04.00	ADMINISTRAZIO ETA ZERBITZUETAKO LANGILEAK HAUTATZEA ETA LANPOSTUAK BETETZEA
N3	D05.00	IZENDAPENAK
N3	D06.00	LANGILEEN ESPEDIENTEEN KUDEAKETA
N3	D07.00	EGOERA ADMINISTRATIBOAK
N3	D08.00	DIZIPLINA ARAUBIDEA
N3	D09.00	ZERBITZU ERLAZIOA GALTZEA

N3	D10.00	LANGILEEN EBALUAZIOA ETA PROMOZIOA
N3	D11.00	ORDAINSARIAK
N3	D12.00	GIZARTE AURREIKUSPENA
N3	D13.00	LAN BALDINTZAK
N3	D14.00	LANGILEEN MUGIKORTASUNA
N3	D15.00	PRESTAKUNTZA ETA HOBEKUNTZA
N3	D16.00	LAN HARREMANAK
N3	D17.00	LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOA
N3	D18.00	OSASUNA ZAINTZA
N3	D19.00	EKINTZA SOZIALA

N2	E00.00	BALIABIDE EKONOMIKOEN KUDEAKETA
-----------	---------------	--

N3	E01.00	PROGRAMAZIO EKONOMIKOA
N3	E02.00	UNIBERTSITATEAREN AURREKONTUA EGITEA
N3	E03.00	AURREKONTUA ALDATZEA
N3	E04.00	AURREKONTUAREN BETEARAZPEN EGOERAK
N3	E05.00	AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA ETA ITXIERA
N3	E06.00	DIRU SARREREN KUDEAKETA
N3	E07.00	GASTUEN KUDEAKETA
N3	E08.00	AURREKONTUZ KANPOKO KUDEAKETA
N3	E09.00	DIRUZAINTZAREN KUDEAKETA
N3	E10.00	ZERGA BETEBEHARRAK
N3	E11.00	AUDITORETZAK
N3	E12.00	KONTRATAZIOA

N2	F00.00	ONDASUN HIGIGARRIEN KUDEAKETA
-----------	---------------	--------------------------------------

N3	F01.00	ONDASUN HIGIGARRIAK JABETZAN ESKURATZEA
N3	F02.00	ONDASUN HIGIGARRIEN ERABILERA ESKURATZEA
N3	F03.00	ONDASUN HIGIGARRIEN DESAFEKTAZIOA
N3	F04.00	ONDASUN HIGIGARRIEN JABETZA LAGATZEA
N3	F05.00	ONDASUN HIGIGARRIEN ERABILERA LAGATZEA
N3	F06.00	ONDASUN HIGIGARRIEN INBENTARIOA
N3	F07.00	ONDASUN HIGIGARRIEN ERABILERA ETA MANTENTZEA

N2	G00.00	ONDASUN HIGIEZINEN KUDEAKETA
-----------	---------------	-------------------------------------

N3	G01.00	ONDASUN HIGIEZINEN ANTOLAKUNTZA
N3	G02.00	ONDASUN HIGIEZINAK JABETZAN ESKURATZEA
N3	G03.00	ONDASUN HIGIEZINEN ERABILERA ESKURATZEA
N3	G04.00	ERAIKITZEA, EGOKITZEA ETA BIRGAITZEA
N3	G05.00	ONDASUN HIGIEZINEN DESAFEKTAZIOA

N3	G06.00	ONDASUN HIGIEZINEN ERABILERA LAGATZEA
N3	G07.00	ONDASUN HIGIEZINEN JABETZA LAGATZEA
N3	G08.00	ONDASUN HIGIEZINAK INBENTARIOA
N3	G09.00	ONDASUN HIGIEZINAK MANTENTZEA
N3	G10.00	ONDASUN HIGIEZINEN ERABILERA
N3	G11.00	INGURUMEN KALITATEA
N3	G12.00	ASEGURUAK
N3	G13.00	SEGURTASUNA ETA PREBENTZIOA

N2	H00.00	ARAUDIA ETA KUDEAKETA JURIDIKOA
-----------	---------------	--

N3	H01.00	UNIBERTSITATEAREN ARAUDIA
N3	H02.00	JARDUKETA JURIDIKOAK
N3	H03.00	IZENA EMATEA ERREGISTRO OFIZIALETAN
N3	H04.00	UNIBERTSITATEAREN BEREZKO ERREGISTROAK
N3	H05.00	ADMINISTRAZIO BIDEAN DIREN EGINTZAK BERRIKUSTEA
N3	H06.00	ERREKLAMAZIOAK
N3	H07.00	UNIBERTSITATEKO KOMUNITATEAREN ESKUBIDEEN DEFENTSA
N3	H08.00	PROZESU JUDIZIALAK

N2	J00.00	KUDEAKETA AKADEMIKOA
-----------	---------------	-----------------------------

N3	J01.00	UNIBERTSITATERAKO SARBIDEA
N3	J02.00	UNIBERTSITATEKO PREINSKRIPZIOA
N3	J03.00	MATRIKULAZIOA
N3	J04.00	ESPEDIENTEEN AKADEMIKOEN KUDEAKETA
N3	J05.00	BEKAK ETA LAGUNTZAK
N3	J06.00	TRUKEA ETA MUGIKORTASUNA
N3	J07.00	TITULU AKADEMIKOAK
N3	J08.00	IKASLEEN ANTOLAKETA

N2	K00.00	IRAKASKUNTZAREN ETA IKASKETEN KUDEAKETA
-----------	---------------	--

N3	K01.00	UNIBERTSITATEKO PROGRAMAZIOA
N3	K02.00	IRAKASKUNTZAREN ANTOLAKUNTZA
N3	K03.00	EBALUAZIO AKADEMIKOA
N3	K04.00	PRAKTIKA AKADEMIKOAK
N3	K05.00	IRAKASKUNTZAREN EBALUAZIOA
N3	K06.00	IRAKASKUNTZAREN HEDAPENA

N2	L00.00	IKERKETAREN ETA TRANSFERENTZIAREN KUDEAKETA
-----------	---------------	--

N3	L01.00	IKERKETA POLITIKA
N3	L02.00	IKERKETA KUDEATZEKO ERAKUNDEAK ETA IKERKETAN LAGUNTZEKO

N3	L03.00	IKERKETA TALDEAK ETA SAREAK
N3	L04.00	ETIKA IKERKETAN
N3	L05.00	PROIEKTUAK
N3	L06.00	PRESTAKUNTZA
N3	L07.00	IKERTZAILE HASI BERRIAK
N3	L08.00	MUGIKORTASUNA
N3	L09.00	ZIENTZIA AZPIEGITURA
N3	L10.00	KONTRATATUTAKO IKERKETA JARDUERA (ULOren 83. art.)
N3	L11.00	SARIAK ETA AITORPENAK
N3	L12.00	IKERKETAREN TRANSFERENTZIA
N3	L13.00	IKERKETAREN HEDAPENA
N3	L14.00	IKERKETAREN EBALUAZIOA

N2	M00.00	AKADEMIAZ KANPOKO ETA UNIBERTSITATE HEDAPENeko ZERBITZUEN KUDEAKETA
-----------	---------------	--

N3	M01.00	KULTURA ETA GIZARTE JARDUERAK
N3	M02.00	PRESTAKUNTZA JARDUERAK
N3	M03.00	KIROL JARDUERAK
N3	M04.00	AKADEMIAZ KANPOKO ZERBITZUAK
N3	M05.00	KONTZILIAZIOA
N3	M06.00	LANERATZEA
N3	M07.00	BERDINTASUNA
N3	M08.00	UNIBERTSITATEAREN GIZARTE ERANTZUKIZUNA
N3	M09.00	HIZKUNTZA ZERBITZUAK
N3	M10.00	UNIBERTSITATEKO TXARTELEN KUDEAKETA